

# **FUNTSEZKO JARDUERAK**

**-Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Proiektua hasi baino lehen GKE batekin kontaktatu behar dugu gure proiektua aurrera eramateko. GKE hori prest egon behar da webgunean lortutako dirua egoera latz batean dagoen jendeari hezkuntza baliatzeko.

Hasieran, gure proiektua funtzionatzen hasteko ezaguna egin behar dugu, jendeari iritsi behar zaio gure proiektuaren informazioa: zer den, helburua, nola funtzionatzen duen, etab. Horretarako, gaur egun, sare sozialen laguntza daukagu.

Webgunea berritzen joan behar da, hau da, arazoak aurkitzen badira konpondu. Jendearentzat erreza izan behar da webgunea erabiltzea, horregatik diseinua erakargarria izateaz gain, garbia izan behar da. Atalak ondo desberdinduak egon behar dira, alde batetik azaldu zeri buruz doan webgunea, eta bestetik nola lagundu daiteke.